

## HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIAREN JARRAIBIDEAK, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA ESPEZIFIKOAK DITUZTEN IKASLEEI BALIABIDE PERTSONAL ESPEZIFIKOAK ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZKOAK

118/1998 Dekretuak, ekainaren 23koak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna antolatzen duenak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta egokia bermatzeko hezkuntzaren arloan ezarri beharreko neurri orokorrak jasotzen ditu.

Helburu horrekin, aipatutako Dekretuan xedatzen denez, ikastetxeek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei (HPB) arreta egokia emateko behar diren baliabide pertsonalak, materialak eta programak edukiko dituzte. Hala, lehenik eta behin, irakasle arruntez gain, dagozkien irakasle-aholkulariak (Haur eta Lehen Hezkuntzan) edo irakasle-orientatzaileak (Bigarren Hezkuntzan) izango dituzte. Horiei hezkuntza bereziko berariazko irakasleak gehituko zaizkie (PT-Pedagogia Terapeutikoko irakasleak eta EHI Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak).

Irakasleez gain, ikastetxeek hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko hezkuntza-langileak dituzte. Fisioterapiako langileak, terapia okupazionalako langileak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, zeinu-hizkuntza interpretatzeko langileak edo curriculumeko materialak transkribatzeko eta egokitze langileak dira azken horren parte.

Hezkuntza-langileek, bere eskumenen esparruan, ikastetxeko irakasle taldearekin, familiekin eta gainerako profesionalekin elkarlanean aritu eta koordinatzen dira, baita askotariko laguntza-zerbitzuekin ere (Berritzegunea, IBTa, ospitaleko eta etxeko hezkuntza eta arreta terapeutiko-hezigarria...), ikasleei arreta onena emateko.

LOE argitaratu ondoren, HPBak Hezkuntza Laguntzako Premia Bereziak (HLPB) izeneko multzo handiago baten barruan geratu dira. Horien barruan, HPBak dituzten ikasleak dira ahulenak eta testuinguruak haiei sortzen dizkie parte hartzeko eta ikasteko oztopo gehien. Horregatik, intentsitate handiagoko laguntza behar izaten dute. Gure hezkuntza-sistemak oztopo horiek gainditu eta deuseztatzeko duen konpromisoari jarraituz, hezkuntza-erantzuna eta laguntza, batez ere, baliabide pertsonal bereziak ematea izan da: bai irakasleak bai hezkuntza-langileak. Laguntza, askotan, ohiko ikasgeletan nekez ezartzekoa den jarduera oso berezi gisa planteatu da. Ondorioz, aniztasunari arreta ematea irakasle edo profesional partikularren ardura den ustea sortu da –uste oso sustraitua eta askotan inplizitua–, eta hala, antolaketan baztertu egin da eta programa berezien eta programa horietako profesionalen ardurapean utzi da, ez ikastetxearen ardurapean.

Laguntza beste norbaiten esku uzteak eta bereizteak, berdintasun- eta ekitate-printzipioak bermatzeko elkarlan eta ardura partekatuko prozesutzat hartu beharrean, aparteko baliabideak – bereziki, PT irakasleak eta hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE)– hornitzeko behar etengabe eta gero eta handiagoa dakar. Horrek aparteko baliabideak asko handitzera behartu gaitu, batez ere PT irakasleak eta hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE) eta horien azken urteetako hazkunde-erritmoa, HPBak dituzten ikasleen hazkundearekin alderatuta, espero litekeena baino handiagoa izan da. Gainera, askotan, heziketa segregatua ematea eragin du.

Beraz, martxan dauden praktikak deseraiki egin behar ditugu. Ohiko erantzuna zuzenean eta etengabe aparteko baliabideak ematearekin lotuz gero sistema eutsiezina bihurtzen delako ez ezik, baita inklusioan laguntzeko baliabideak azkenean heziketa segregatua ematea ahalbidetzen dutelako ere.

Ikasleak baztertzen ez dituen ikasgela batean, laguntzak tradizioz izan duenaren oso bestelako tokia betetzen du. Ikasle guztiei erantzun egokia eman ahal izateko antolaketa-eredu berria zein izan daitekeen aztertu behar da. Eredu berri horretan, aparteko baliabideak lekua izan behar dute. Kontua ez da horiei uko egitea, baizik eta sistema inklusibo bateko laguntza bihurtzea; hau da, nagusiki ikasgelan eta ikasgelatik, irakasle arruntekin lan egingo duen eta ikasle guztiek parte hartzea eta ikastea ahalbidetuko duten metodologiak erabiliko dituen sistema inklusibo bateko laguntza.

Antolaketa-eredu hori definitu eta dagokion arau-esparrua ezarri bitartean, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren ustez, aparteko baliabideak eskatzeko irizpideak eta prozedurak finkatu behar dira, baita ikastetxeei eta aholkularitzei hezkuntza-premia berezien inguruko irizpideak eta orientabideak eman ere, hiru lurraldeetan modu homogeneoan jokatzeko.

Horregatik guztiagatik, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak jarraibide hauek ematen ditu:

## **1. IKASLEEI ERANTZUTEKO ESLEITUTAKO BALIABIDEAK KUDEATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK, IKASTETXEEI ZUZENDUAK**

- Zuzendaritza-taldeari dagokio esleitutako baliabideak bere ikasleei erantzun egokiena emateko antolatzea, hezkuntza-premia berezia duten ikasleengan arreta berezia jarrita. Horretarako, ikasturtearen hasieran, Hezkuntza Sailaren aurreikuspenen eta plangintzaren arabera, esleitutako baliabide arruntak eta apartekoak izango ditu.
- *Hezkuntzako sailburuordearen ikastetxe publikoetako ikasturtearen antolaketari buruzko Ebazpenak* xedatzen duenari jarraituz, ikastetxeko jarduera osagarri eta apartekoen plangintza egiterakoan, ikasle guztiak hartu behar dira kontuan, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne. Jardueretan parte hartzeko eskubidea bermatzeko, egokienak aukeratu behar dira eta aurretiaz ikusi, ikastetxearen baliabide propioak kontuan hartuta (irakasle eta hezkuntza-langile profesional guztiak), zer profesionalek lagunduko dieten ikasleei jarduera horietan.
- Ikastetxeei dagokie *hezkuntza-laguntza premia bereziak* dituzten ikasleen hasierako balorazioa egitea eta erantzun egokiena emateko behar diren neurriak eta laguntzak ezartzea. **Ez da beharrezkoa ikaslearen balorazio psikopedagogikoa eginda izatea ikastetxeak bere jarduera-esparruaren barruan dauden neurriak ezartzeko.** Honako neurriak, besteak beste: curriculumerako sarbidea izateko behar diren egokitzapenak egitea, ikastetxeari dagozkion eskumenen barruan; ikastea eta parte hartzea sustatzen duten metodologia aktiboak eta parte hartzeak ezartzea; ikasteko modu ezberdinetara egokitzea; ebaluazio-irizpideak eta -ereduak egokitzea; malguak izatea eta ikasgelako programazioa eta edukiak ikasleen interes eta premietara egokitzea.

- Balorazio psikopedagogikoa egindakoan, hezkuntza-laguntza premia bereziak dituzten ikasleek, egindako balorazio psikopedagogikoaren arabera, behar duten laguntza pertsonalaren intentsitatea honela ulertu behar da: hainbat esparrutan (norbere autonomia, curriculumerako sarbidea eta ikasi ahal izatea, hizkuntza eta komunikazioa) behar duten laguntza-maila gisa, ez profesionalek eskaini beharreko arreta zuzeneko ordu kopuru gisa. **Irakasle arrunt guztiek ere hezkuntza-erantzuna emateko ardura daukate eta ikasgelako programazioa egokitu egin beharko dute, HLPB dituzten ikasleei aipatutako esparruetan laguntza emateko.** Bestetik, PT irakasleek ahal dela ikasgelan esku hartuko dute, HPBak dituen ikaslearen talde naturalarekin, eta ikasgelako programazioa egokitzen lagunduko du.
- Baliabideak eta ordutegiak antolatzerakoan, zuzendaritza-taldeak aintzat hartuko du ezingo dutela aldi berean bi aditu edo espezialistak edo gehiagok esku hartu *hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleekin*, gela egonkorreko langileen kasuan izan ezik.
- Aipatutako *Hezkuntzako sailburuordearen ikastetxe publikoetako ikasturtearen antolaketa buruzko Ebazpenean* xedatutakoari jarraituz, ikasturtean zehar egiten diren ikasle balorazioak, laguntzen intentsitate-aldaketak edo ikasturtean zehar ikasle berriak sartzeak ez du aurretik planifikatu eta ikasturtearen hasieran esleitutako baliabideak berrikustea ekarriko. Ikastetxeak ikasle berriari arreta emateko beharrezko doikuntzak eta ordutegi-aldaketak egin beharko ditu. Era berean, irakasleek ikasgelako programazioa ikasle berriaren laguntza-premietara egokituko dute. Balorazio berriak eta aurretik egindako balorazioen aldaketak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturteari dagokion esleipena zehazteko.
- Salbuespen gisa, ikasturtean zehar intentsitate handiko laguntza behar duten ikasleak sartzen badira, ikastetxeak hezkuntza-laguntzako espezialisten (HLE) esleipena berrikusteko eskatu ahal izango du. Ikastetxean ikasle berriak sartzeak justifikazio bat izan behar du: beste herri batera bizitzera joan izana edo euskal hezkuntza-sisteman sartzea. Ikastetxeak, bere eskaeran, esleitutako bitartekoak berrantolatu dituela eta hala ere ikasle horri ordutegitarteren batean arreta ematea ezinezkoa zaiola justifikatu beharko du.
- Jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleak izateak ez du justifikatzen baliabideen aparteko esleipen bat egin behar izatea. Horri dagokionez, jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleak dituzten ikastetxeek krisi-egoerei modu eraginkorrenean erantzuteko egokiena den jarduera-protokoloa ezarri beharko dute, eustea beharrezkotzat jotzen denean eta jokabidearen larritasunagatik behin-behineko beste toki edo programa batzuk erabiltzea beharrezkoa denean. Horretarako, Berritzeguneen aldetik beharrezko aholkularitza jaso ahal izango dute. *HPBak dituzten Ikaslearen Autonomia Garatzeko eta Curriculumerako Sarbidea Izateko Laguntza Premia Zehazteko Protokoloak* xedatzen duenari jarraituz, jokabide-nahasmenduei, lehenik eta behin, irakasle arruntek eman behar diete arreta eta, ondoren, laguntzako irakasleek (PT). Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE), ikastetxeko beste edozein profesionalek bezala, autoerregulazioa sustatzeko zereginetan lagundu ahal izango du, dagokion ikaslearen planean hala finkatuta badago.

- Baliabide publikoak modu efizientean erabili eta modu eraginkorren kudeatzeko, HPBak dituen edozein ikaslek baja hartzen bada edo lekuz aldatzen bada, ikastetxeak lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Berritzatzeko Zerbitzuari jakinarazi behar dio. Hezkuntza Berritzatzeko Zerbitzuak ofizios egiaztatuko du eginbehar hori bete den. Horretarako, aldian behin matrikulako datu-basean dauden datuak eskatuko ditu.
- Ahal bada, eta zonaldeko Berritzegunearen esparruan, HPBak dituzten ikasleak ikastetxez aldatuz gero, haiekin lotutako baliabide pertsonalak lekualdatu egingo dira (HLEak, ZHIak...). Berritzegunearen esparrutik kanpoko eremu batera lekualdatu arren, mugakidea bada, baliabidea lekualdatu ahal izango da, langilea ados egonez gero. Hala ere, kasu batzuetan, gerta daiteke langileak birbanatzea eta beste antolaketa modu batzuk ezartzea, baita nahitaezko zerbitzu-eginkizuna ezartzea ere, presagatik eta atzeraezinezko behararengatik.

## **2. HPB-AK DITUZTEN IKASLEENTZAKO BALIABIDE PERTSONALAK ESLEITZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK, BERRITZEGUNEETAKO HPB AHOIKULARIEI ZUZENDUAK:**

- Zonalde bakoitzeko Berritzeguneetako HPB aholkulariek *HPBak dituzten Ikasleen Autonomia Garatzeko eta Curriculumerako Sarbidea Izateko Laguntza Premia Zehazteko Protokoloa* erabili beharko dute, HLE langileen eta PT irakasleen laguntza-premia zehazteko; azken kasu horretan, autonomiaren arloan bakarrik. Ikasle bakoitzarekin nahitaez aplikatu beharko da, autonomiaren eta curriculumerako sarbidearen esparruan dagoen PT edo HLE laguntza-premiari dagokion kodetze diagnostikoa jarri aurretik.
- HPBak dituzten ikasleek Autonomia Garatzeko eta Curriculumerako Sarbidea Izateko Laguntza Premia Zehazteko Protokoloko zein esparru eta arlotako laguntza-premia duten argitu eta berehala, *autonomia garatzeko eta curriculumerako sarbidea izateko programa bat*<sup>1</sup> egin beharko da. Programa horretan, HLEak –eta kasuan-kasuan, PTak– lortu beharreko helburuak eta egin beharreko zereginak zehaztu beharko dira. Berrikuspenak hiru hilean behin egingo dira, ebaluazio arrunten modura. Ikasturtea amaitutakoan, aholkularitzek, irakasle aholkulari/orientatzaileekin, PTEkin eta HLEekin batera, egindako lana eta ikasleek arlo bakoitzean lortutakoa ebaluatuko dituzte. Ebaluazio horren ondorioz, *HPBak dituzten Ikasleen Autonomia Garatzeko eta Curriculumerako Sarbidea Izateko Laguntza Premia Zehazteko Protokoloa* eta HLE eta PT baliabide pertsonalen esleipena berrikusiko dira, eta kasuan-kasuan, hurrengo ikasturterako behar diren laguntzen intentsitatea aldatuko da (handitu edo txikitu). Ikastetxe guztiek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura jarriko dituzte programa eta horren ebaluazioak.
- Hurrengo ikasturterako eskolatzeko proposamena egiten denean, HPB aholkularitzek ikasleei esleitutako kode diagnostikoak zuzenak diren egiaztatuko dute; bereziki, adinarekin lotuta dauden kasuetan (atzeratasun psikomotorra eta heltze motela). EHI irakasleen arretari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera horien esku hartzea ez proposatzea gomendatzen da, egoerak berak gomendagarri egiten ez badu behintzat. Azkenik, gogoan

---

<sup>1</sup> Jarraibide hauekin batera, programa-eredua dago.

izan desgaitasun intelektualaren diagnostikoan, edozein mailatakoa dela ere, ikasleen egokitzeko gaitasuna kontuan hartu behar dela.

- **Balorazio psikopedagogikoa hezkuntzaren arloko esku-hartzeko aparteko prozesu bat da.** Tutoreek eta irakasle orientatzaile edo aholkulariek ikasleen dibertsitateari erantzuteko egokitzat jotako neurri arrunt guztiak nahikoak izan ez direnean bakarrik egin behar da. Haur Hezkuntzako ikasleen kasuan, *Haurren Garapenaren Jarraipena Egiteko Protokoloan* zehaztutakoa aurrera eramanda egongo da, *Berariazko Detekzio* fasea barne, HPB aholkularitzak berak kontrakorik adierazi ezean. Lehen edo Bigarren Hezkuntzan, beharrezkotzat jotzen diren laguntza-neurriak bere eskumenetatik kanpo daudenean bakarrik kontsultatu behar du ikastetxeak HPB aholkularitzarekin balorazio psikopedagogikoa egitea egokia den.
- Familia batek ikastetxeari bere seme-alabaren balorazio psikopedagogikoa egiteko eskatzen badio, ikastetxeak familiaren eskaera aztertu beharko du eta eskatu edo ez erabakiko du, laguntza-neurrien premia ikastetxearen eskumenean barruan dauden edo ez oinarritzat hartuta, hala nola dauzkan judizio-elementuak (ikastetxeko irakasle, orientatzaile edo aholkularien balorazioa, tutoreen txostenak, familiak aurkeztutako txosten diagnostikoak, aipatutako tresnak, besteak beste *Haurren Garapenaren Jarraipena Egiteko Protokoloa*, aplikatzearen emaitzak...). Azkenean balorazio psikopedagogikoa egiteko eskatzen bada, aurreko informazio guztia, familiak aurkeztutako txosten diagnostikoak barne, balorazio psikopedagogikoaren barruan sartuko dira eta dagokionerako kontuan hartuko dira. HPBak dituzten ikasleen hezkuntzaren arloko laguntza-premiak zehaztea ikastetxeko irakasle aholkulari/orientatzaileei eta Berritzeguneetako HPB aholkularitzei dagokie, beraz, familiek aurkeztutako txosten diagnostikoetan –beste erakunde edo entitate batzuek eginak– jasotako ikastetxe-arloko orientabideek, gomendioek edo oharrek ez diete inola ere eragingo profesional horiei.
- Txosten diagnostikoak mediku-zerbitzu edo psikologia-kabinete pribatuetatik badatoz, txosten horietan ikasleari egin zaizkion proben zerrenda, emaitzak eta horien karatula jaso behar dira. Osakidetzaren txosten diagnostikoen kasuan, Osasun Sailaren eta Hezkuntza Sailaren informazio-trukerako protokoloetan zehaztutakoa bete beharko da. (*Hezkuntza-Osasun mentalaren Elkarlanerako Oinarri Orokorra*. [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig\\_publicaciones\\_innovacion/eu\\_neespeci/adjuntos/18\\_nee\\_110/1102018001e\\_elkarlana\\_hezkuntza\\_osasun\\_mentala\\_e.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_neespeci/adjuntos/18_nee_110/1102018001e_elkarlana_hezkuntza_osasun_mentala_e.pdf))
- Bai hasierako balorazio psikopedagogikoa egiteko bai ondorengo berrikuspenetarako, nahitaezkoa da familiari edo legezko tutoreei jakinaraztea zergatik egingo den, zein helburu duen, balorazioa eta probak egiteko baimena eskatzea, beharrezkoak badira, eta ondoren, emaitzak, eskolazte-proposamena, kasuan-kasuan, eta proposatzen diren neurri eta laguntzak jakinaraztea. Jakinarazpen horretan ez dira arreta-orduak adierazi behar.
- Ezingo dira laguntza berriak ezarri edo intentsitateak aldatu, beste balorazio psikopedagogiko bat egin edo dagozkien ikasleen jarduketa-planak esplizituki berrikusten ez badira eta horren arabera laguntza handitu edo intentsitatea aldatzea gomendatzen ez bada.

- Ikasturtean zehar Berritzeguneetako HPB aholkulariek laguntza pertsonaletan aldaketak egiteko une jakin batzuk finkatuko dira: urteko aurreikuspenak egiterakoan (martxoan), ikasturtearen bukaeran (ekainean) eta hurrengo ikasturtearen hasieran (iraila). HPB aholkulariek ikasturtean zehar egiten dituzten ikasleen balorazioek edo laguntzen intentsitate-aldaketek ez dute ikastetxeari esleitutako baliabide berrikustea ekarriko. Egindako aldaketak aintzat hartuko dira hurrengo ikasturtean zer esleipen egin beharko den zehazteko.

### 3. BALIABIDEAK ESLEITZEKO PROZEDURA

- Baliabideak esleitzeko **prozedura arruntaren** helburua hezkuntza-sistemak ikasle guztiei erantzuteko zer baliabide arrunt eta berezi dituen finkatzea da. Prozedura hori urte bakoitzeko martxoan abiatuko da, ikasleen eskolatzeko-aurreikuspenekin, eta abuztuan bukatuko da, plazak esleitzeko prozesuekin. Ikasturtean zehar eta denbora-epe horretan egiten diren balorazio berriak eta berrikuspenak kontuan hartuko dira ikastetxeak hurrengo ikasturtearen hasieran zer baliabide arrunt eta berezi izango dituen zehazteko.
- Baliabideak esleitzeko **aparteko prozedura** ikasturtearen hasieran esleitutako baliabideak areagotzea eskatzeko aparteko prozedura bat da. Baliabide gehigarrien eskaerak ikastetxera intentsitate handiko laguntza behar duten ikasle berriak sartzearekin edo gerora sortutako intentsitate handiko laguntzaren behararekin lotuta egon behar du.
- Prozedura hori **ikastetxeak Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-buruzagitzari eskaera eginez** hasten da. Eskaera horretan, zer baliabide zehatz eskatzen duen, eta zergatik, adierazi beharko du. Eskaeran, ikastetxeak alderdi hauek adierazi beharko ditu: ikasle berriek zer premia dituzten, ikasle berriei arreta emateko zer aldaketa egin diren antolaketa, ordutegi eta metodologiaren aldetik –ikastetxeko bizikidetzak- edo aniztasun-planetak aldaketak barne-, eta azkenik, zein den ikastetxeak estali ezin duen arreta-denbora.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-buruzagitzak **eskaerari buruzko txosten bat** egiteko galdegingo dio erreferentziazko **Berritzeguneari**, estali behar den arreta-orduen kopuruari, ikasleak behar duen laguntzarako egokitasunari eta eremuan ikastetxearen eskaera estal dezaketen baliabideak egoteari dagokienez.
- Halaber, Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-buruzagitzak **Hezkuntza Ikuskaritzari txosten bat** eskatuko dio, ikastetxeak antolaketa, metodologia, ordutegi eta bestelakoen inguruan adierazitako aldaketak benetan egin dituela ziurtatu dezan.
- Jasotako informazioarekin, **Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-buruzagitzak txosten bat egingo du**, eta eduki hau jaso ahal izango du:
  - ikastetxearen **eskaera ukatzen duen txosten bat**, baliabide zehatz gehigarriak eskatzeko finkatutako baldintzak ez betetzeagatik; hori ikastetxeari helarazi eta prozedura itxiko du.

- ikastetxearen **eskaera onartzen duen txosten bat**, eskaera osoa onartu dezake edo baliabide eman bai baina arreta-ordu gutxiagokoa izatea proposa dezake. Kasu horretan, ikastetxearen eskaera onartzen duen txostena eta dokumentazio guztia Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako zerbitzu nagusiei helaraziko dizkie.
- **Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako** zerbitzu nagusiek Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-buruzagitzak helarazitako dokumentazioa aztertuko dute. Dokumentazioa zuzena bada, baliabide zehatz gehigarriak eskatuko ditu. Ez bada, lurralde-buruzagitzari eskaera zuzentzeko eskatuko dio.
- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-zerbitzuek, **Eskolatzeko Batzordeari** intentsitate handiko laguntza-premia duten ikasleak eskolatzeko ikastetxe egokiena zein den jakinarazteko orduan, ikastetxearen hasierako esleipena, geroago eman zaizkion aparteko baliabideak eta ikasturtean zehar gertatutako HPBak dituzten ikasleen bajak hartuko dituzte aintzat.

#### 4. HPB-AK DITUZTEN IKASLEAK GARRAIATZEKO LAGUNTAILEAK ESLEITZEA

- 2018ko apirilaren 13an sinatutako hezkuntza-langileen lan-baldintzei buruzko erabakiak xedatzen duenez, hezkuntza-laguntzako espezialistek ez dituzte HPBak dituzten ikasleak garraiatzeko laguntzaile-lanak beteko, salbu: jarduera hori aldi baterakoa bada, autonomia garatzeko programa baten barruan badago eta horren helburua ikasleak garraiorako autonomoak izatea bada.
- Eskola-garraio arrunta erabiltzen duten HPBak dituzten ikasleak garraio-laguntzaileen ratioan sartzen dira eta horiek eman behar diete arreta, beste edozein ikasleri bezala. Hala ere, gerta daiteke HPBak dituzten ikasle batzuek joan-etorrian arreta edo zaintza berezia behar izatea; kasu horretan, laguntza indartu egingo da, langile gehiagoren bidez.
- Garraioan arreta edo zaintza berezia behar dela kontsideratzen da garraiatzen diren ikasleek HPBak baldin badituzte eta gaixotasun larri bat edo aurretiko sintomarik gabe krisi bat izateko arriskua baldin badute, edo jokabidea autoerregulatzeko zailtasunak baldin badituzte eta horren ondorioz ihes egiteko edo beren buruari edo besteei eraso egiteko joera badute. Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezien aholkulariek adierazi behar dute garraioan arreta edo zaintza berezia behar dutela, ikasleek eskola-garraio arrunta edo taxia erabiltzen badute. *HPBak dituzten Ikasleen Autonomia Garatzeko eta Curriculumerako Sarbidea Izateko Laguntza Premia Zehazteko Protokoloa* aldatu egingo da, bertan laguntza berezi horren beharra jasotzeko.
- Urte bakoitzeko **ekainaren 15a** baino lehen, Berritzeguneetako zuzendaritzek garraioan arreta edo zaintza berezia behar duten ikasleen zerrenda helaraziko diete Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-buruzagitzari, honako hau adieraziz: zer ikastetxetan eskolatuko diren, Haur/Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako eskola-garraio arruntean edo taxian

gingo dituzten joan-etorriak eta ibilbidea, garraioaren abiapuntuko geltokiaren kokapena eta joan-etorriko ibilbidearen gutxi gorabeherako iraupena.

- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-buruzagitzek, **uztailaren 1a** baino lehen, lurralde bakoitzean garraiorako laguntzaileak behar dituzten ikasleen zerrenda helaraziko diete, Berritzeguneez helarazitako datuekin batera, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako zerbitzu nagusiei, ikasturtea hasi aurretik garraiorako laguntzaileen kontratazioa kudeatu ahal izan dadin.
- **Iraileko lehenengo astean**, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako zerbitzu nagusiek garraiorako laguntzaileak behar dituzten HPBak dituzten ikasleen ikastetxeei zerbitzua adjudikatu zaion enpresaren eta koordinatzailearen datuak helaraziko dizkiete, zerbitzuaren hasiera eta familiarekiko komunikazioa behar bezala kudeatzeko.



Lucía Torrealdy Berrueco  
Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria